

Koherentzia

PIARRES XARRITTON



IRRATIKO berriak entzuten ari nintzela, politikari ezagun bat entzun dut bere alderdiaren «koherentzia» gorripatzen. Ordu berean gogoratu zait, hurbilago dudan beste politika gizon bati ere askotan entzun diodala hitz bera erabiltzen: «Koherentzia behar dugu zaindu gure politikan».

Eta zergatik koherentzia? diot galdatzen ene buruari. Eta orduan ohartzen naiz alde batetik «Egia» bera, kolokan dugula asko tokitan. Eta menturaz konzeptu hori hobeto dugula teologoen eta zientzilarien esku utzirik, horrek hutsik utzi lekua emaiten dioen politika sailean «koherentzia»-ri. Bestela ere «inkoherentzia» eroriz geroz, guziak zoro-etxe batean sartzeko on gintzek! «Inkoherentzia» zoramenduaren gaitza baita.

«Koherentzia» hori zuzen zer den nola adieraz ordea euskaldunei? Aberrri Eguna-ren bezpera honetan bainago, ez tote zaigun euskaldunen politika, «inkoherentzia» hutesan eroria.

Dena dela erdarazko «coherent», «incoherent» hitzak adierazteko Mugikaren hiztegian aurkitu dudana euskal hitz egokiena hau da: «incoherente» = «segida gabe». Horretatik atera genezake beraz «coherente» dela «segidarik baduena» edo «jarraituenik», hots «jarraikia» dena. «Jarraitutasuna» da azkenean «koherentzia» euskaldunarentzat.

Hea orai Euskaldunak, nor garen gure urratsetan «jarraikiago»? Zein «koherenteago»? gure Herriaren geroa lotuz haren iraganari, orainaren bitartez.

Buesari alferrik

TXILLARDEGI



PSOE-tarren anti-euskaltzasunak ez du aurkezte beharrik. Don Indalecio famatu hargandik hasi («yo sientio a Bilbao, pero no sientio a Lequeitio»), eta García Damborena, Múgica-Herzog anaiak, Ana Ariz, eta abar, eta abar; eta orain, Recalde eta Huertas-ek utzitako hutsuena bete nahiz, Buesak hartu du herraren zuzia.

Buesaren alderdikideek, behin eta berriz erakutsi digutenek, ezin dezakete ahanztu eta ez barba Gibraltar Espainiak galtzea. Oso aspaldiko kontua da, eta harroka-mutur bat besterik ez da hura. Baina Espainia-ri azbete bat kentzea, barkatu ezina! Horixe!

Baina Euskal Herriak Gibraltar baino askoz ere gehiago (zabaleraz, kondairaz, jendez) den *herrialde oso* bat gaitzake, ez dio ezer idarokitzen. «Euskara araban?» Erauz ditagun azkeneko aztarnak, aitortu da lotsagabeki. Eta Recalde, Múgica, Egiguren eta gainerako «harki» guztien txaloa bildu du seguituan.

Kardaberatz heraniarrak, ordea, argi utzi du bere obran euskara *Zanpaketa*ren Ondorioz ahuldu zela XVIII. mendean: «Erregeren kapitain baliente batek» esan zionez... «Araban alegein guziak egiten ari dira euskara ondatzeko»... Garai hartan, *Lautada osoan*, euskaraz egiten baitzen oraindik. Arabako «ergoienak» («eri txikiak onela Araban deitzen diete», Kardaberatzen hitzez) osoki euskaldunak ziren... Eta Gibraltar britaindarra zen orduko. Baina Buesari bigarren hau axola zaio. Besteak?

Orainago, hortxe daude Landazuri eta Belaskoren datuak: joan den mendean er bukaeran arabar euskaldun pila zegoen oraindik. Baina euskaltzaleek tristetzen gaituzten berri horiek, *pozez* gainezka betetzen dute Buesa «harkia».

Buesa-ren ametsa orain hau da: Aramaixo, Navecedilla de Corneja-rekin uztartzea. Jakina!

EL SOL

Jugoslaviako makina zentrifugoa

Independentismoa duela hilabete batzutatik hona lurperatua dagoen sentimendua da. Eslovakiarrek erreferendum batean independentziaren aldeko botua eman zuten eta Kroaziako Legebiltzarrek bere gain hartu ditu botereak, edozein momentutan aldarrikatzeko. Horren aurrean Kucan eta Tudjman lehendakariak moderatuta agertzen dira —erosago egongo bait lirarteke Hungria eta Austriarenganako urbiltasun paralo batetan— Milosevic-ek, ordea, aurkakotasuneko jarrera agertu du, beti eskura bait dauka koponbide militarra iradokitzea. Berarentzat okerrena da, errenplazoko armadak ari dela; ondorioz tropa horiek ez dute ofizialek duten adinako fidagarritasunik eta beroien ahalmena ez da Kroazia eta Eslovenia okupatzeko adinakoa, eta gobernu horiek komenioa sinatu dute, ia defentsarako pakto informal baten ingurukoa.

EDUARDO

CHAMORRO / 1991-III-15

H EMEROTEKA



ZULET / EL CORREO ESPAÑOL / 91-III-15

EL MUNDO

Borroka antiterroristaren «akatsak»

Terrorismoaren aurkako borroka ezin da edozein gauzaren truke aurrera eramanez —gobernari batzuk nahi duten bezala—. Beldurra ematen du Estatuaren izenean zenbat ankerkeria egin edo diren pentsatzeak «legearen barruan». Batzuetan —orain bezala— posible da zigortutako batzuk nolobait «saritzea». Susmagarria Estatuako aparatuekin zerikusia duten pertsonen exekutatu edo erahiltzen dituztenetan (GALen kasua Espainian), ez dago atzera joateko posibilidaderik.

John Majorrek IRArekin el-

karrizketatzeko prest dagoela esan zuen atzera. Aukera hori dagoen bitartean, bide horretatik jarraitu behara dute Estatuak indarkeriarekin amaitzeko.

EDITORIALA / 1991-III-15

Navarra

Euskararen egoera

Nafarroan gutxieneko «hizkuntz kontsentsua» lortzea zuzendutako ekimenak ezarri eta babestu behar dira. Bamean utopia dosi batzuk dituen proposamen honetara, nahitaezotasunaren birtutea ere badu. Ezin dugu pentsa jarrera desberdinak hurbiltzen saiatu gabe, gure lurraldeko hizkuntz arazoa konponduko dugunik. Suspenditutako ikasgaiak, deialdiren batean

JOSE RAMON

RECALDE / 1991-III-15

ZUZENDARIARI

Antzerki instituzional gutxiago. Izan gaitezen serioak!

Amorrua ematen digu horrenbeste publizitateak, horrenbeste hitz onek, errealtatean emakumeon egoera kultural eta ekonomikoa beti bezain gaizki jarraitzen duenean, instituzioei «asmo onak» ez direnean inoiz betetzen.

Itxaropena geurea da, baina hau ere geroz eta garestiago den aldaezinezko ondanean bilakatzen ari da; eta ondandun hau lortzeko bordenatue onak soilik ez du balio.

Euskal Herria emakume langabezi indize handienetarikoa edukitzezagatik nabarmentzen da. Gure auzoan (Bilbo Zaharra) instituzioek ez dute inolako sensibilitaterik eduki emakumeekiko. Udaleteak ez du ia dirurik ematen emakumeentzat, beraz ez dago zerbizirik, ez ezer. Eta gainera guretzat be-

tidanik borroka eguna izan den Martxoaren 8a, betiko arduragabeek politikoki aprobetxatu nahi dute folklore egun batetan bilakatzu.

BILBO ZAHARREKO EMAKUMEEN TALDEA

«Sagardoa txotxetik euskara gogotik»

Hernaniko Udaletxean bada Euskara Batzorde bat, hamabostero biltzen dena, iriekia, politikez bezala herriarrez osatua.

Bertan proposatzen, eztabaidatzen eta aitzertzen dira Hernaniko herriari eta euskara arloan Udaletik bidertatu nahi diren planak eta ekintzak eta horiek aurrera eramanez ahal izateko bitartekoak eta urratsak.

Batzordea da, beraz, eritziak azaltzeko lekua, denon artean Hernaniko herriari euskararen erabilera bultzatzeko ahalik eta pausu egokienak eman ahal izateko.

Baina hara hemen gure haridura «Sagardoa txotxetik

euskara gogotik» kanpainaren barnean Udala sagardogileekin sinatzea zihonan hitzarmenari Plenoan PSOE, EE, EA, eta EAJ-PNVk ez-tza eman diotela jakin dugunean. Baina nola? zer diozu? baina alderdi horiek beren ordezkariak dituzte Batzordean, eta ordezkari horiek, etorri direnak eta direnatan behintzat, ez dute kontrako eritziarik azaldu batzordean, eta hiruzpalau aldi hitzegin dugu gai horretaz?

Orduan herritarren parte hartzeak, eritziak, proposamenak eta ahaleginak zertarako balio du gero ordezkari politikoa hainbatek aintzakotzat ere hartzen ez baditu eta gure aurrean ez bezala Plenoan kontrako jarrera hartzen badu? eta berdin da zein arrazoi erabiliz.

Benetan, batzordekide bezala engainatuta eta minduta sentitzen gara, eta euskaltzale bezala, kezkatuta, euskararen etorkizunerako atzerapauso galanta delako inizatiba txiki hauek oztopatzea.

EUSKARA BATZORDEA (HERNANI)

P PERTSONAIA



Olivares - 'Bikila'

Lehendik zeuden arrimatuta (gazteen ilusioa) heldutasunak ekarri die ezkontzeko desioa berriantzeko pakea eta besteentzat sesioa espero dute ugaritzea beren prokreaioia ta merkeago ateratzea renta deklarazioa

AITOR SARASUA

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxe: 45 59 57
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxe: 36 54 93
Publizitatea: Loiola, 14-1.3 / 20005 Donostia / ☎: 42 69 96 / Faxe: 42 93 18
Arabak: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxe: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrizti dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78 / Faxe: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxe: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxe: 59 25 75 11

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:

INMA GOMILA

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

LUIZEN ETXEZAHARRETA

INAKE URIAR

Publizitatea:

KORNELIO ROTETA



Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 80090